


Euskal AEko industria-prezioak % 1,4 igo dira 2021eko irailean aurreko hilaren aldean

2020ko irailarekin alderatuta, industriako prezioek % 9,6 egin dute gora

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 1,4 igo dira 2021eko irailean aurreko hilaren aldean. Iraileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 9,6koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen, 2021eko irailean, honako sektore hauek izan dituztela prezioetan hazkunderik handienak aurreko hilaren aldean: *Kokeria eta petrolio finze* (% 5,2ko hazkundera), *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,0koa) eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 3,9koa). Aldiz, prezioetan hilabete arteko jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak izan dira *Botiken fabrikazioa* (% 0,8ko jaitsiera) eta hala *Metalurgia eta produktu metalikoak* nola *Industria kimikoa* eta *Ura* (% 0,3ko jaitsiera hiruretan).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, prezioen aldaketak askotarikoak izan dira aurreko hilaren aldean. *Energiaren* prezioak % 4,9 igo dira, *Ekipo-ondasunenak* % 1,5 eta *Kontsumo-ondasunenak*, orotara, % 0,7. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 0,8 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 0,2. Aitzitik, *Bitarteko ondasunen* prezioak % 0,2 jaitsi dira.

Euskal AEko Industria-Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021eko iraila

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2021ira / 2021abu	2021ira / 2020ira
INDIZE OROKORRA	110,4	1,4	9,6
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	107,0	2,6	-0,2
Manufaktura-industria	110,8	1,0	9,8
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	107,8	0,8	2,5
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	104,0	3,9	-4,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	111,0	0,6	7,6
Kokeak eta petrolioaren fintzen	116,3	5,2	40,4
Industria kimikoa	118,9	-0,3	9,7
Botiken fabrikazioa	110,5	-0,8	2,1
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	100,4	-0,1	1,2
Metalurgia eta produktu metalikoak	116,6	-0,3	16,3
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	113,7	-0,1	8,3
Material eta ekipoen fabrikazioa	107,5	0,1	2,7
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	105,2	0,0	1,9
Garraiorako materialen fabrikazioa	105,9	3,1	-2,7
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	108,7	0,1	2,3
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	108,0	4,0	8,9
Ura	111,4	-0,3	2,6
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	108,5	0,7	2,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	106,8	0,2	2,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	108,8	0,8	2,8
Ekipo-ondasunak	109,0	1,5	0,9
Bitarteko ondasunak	111,4	-0,2	10,3
Energia	113,7	4,9	24,8

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan (2021eko iraila, 2020koaren aldean), prezio-hazkunderik handienak adar hauetan gertatu dira: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 40,4ko igoera), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 16,3ko igoera) eta *Industria kimikoa* (% 9,7koa). Alderantzizko noranzkoan, hauen prezioak jaitsi dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 4,0 behera), *Garraiorako materialen fabrikazioa* (% 2,7) eta *Erauzketa-industriak* (% 0,2).

Helburu ekonomikoaren arabera kontsumo-ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da denentzat: *Energiarenak* % 24,8 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 10,3 eta *Ekipo-ondasunenak* % 0,9. *Kontsumo-ondasunak*, orotara, % 2,7 igo dira, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioak* % 2,8 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 2,4.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62